

Quinteto Zur

Astearte Musikalak

Vital Fundazioa Kultur aretoa

2019ko abenduaren 3an

Ordua: 20:00etan.

Sarrerak: 8€

Nola ordaindu: Banku txartelaren bidez



Asier Urreta, trompa

Ibon Barriga, flauta

Blanca García de Amézaga, oboea

Patricia Pazos, fagota

Eider García de la Torre, klarineta

Honako hauen lanak: Ibert, Holst, Hindemith eta D´Rivera.

Informazioa

Hiriko Jesus Guridi Musika Kontserbatorioko ikasle, lankide eta lagun ohi talde batek duela urtebete eskas sortu zuen Zur Kintettoa. Taldekide bakoitzak bere goi mailako ikasketak egin ondoren, elkarrekin musika egiteko eta haize eta zur boskote batentzat erreperitorio interesgarriena ezagutzera emateko elkartzea erabaki zuten. **Asier Urretak** (tronpa), **Ibon Barrigak**

(flauta), **Blanca Garcia de Amezagak** (oboia), **Patricia Pazosek** (fagota) eta **Eider Garcia de la Torre** (klarinetea) osatzen dute taldea. Instrumentista diren aldetik, nazioko eta nazioarteko ospe handiko musikari ezberdinen eskolak jaso dituzte, musika-kultura aberats batetik elikatuz.

Eeskainiko duten emanaldian askotariko errepertorioa interpretatuko dute Ibert, Holst, Hindemith eta Paquito d'Riveraren lanez osatua. Jacques Ibert-en 'Tres Piezas Breves' umorez betetako obra da. Erabilitako ideiak kafetegien edo zirkuen berezkoagoak dira kontzertu aretoenak baino, baina azaleko geruza horren azpian baliabide instrumentalen ustiapen integrala antzematen da. Gustav Holst-en "Op.14 haizerako boskotea", berriz, 1903an egin zen, eta lau mugimendu ditu, non konpositoreak instrumentu bakoitzaren ezaugarri eta nolakotasunak ahalik eta gehien ustiatzea lortzen duen, bai banaka, bai taldean.

Kontzertuaren bigarren zatiak Paul Hindemith izango du protagonista. Ganbera musikako bere ekoizpen itzelaren artean, non sonatak oso zutabe garrantzitsua diren, bere 'Kleine Kammermusik, Op.24 n^o2' lanak musikagile hotzaren, intelektualaren eta errutinazkoaren inguruko ideia hori baztertzeko balio dezake. Bost mugimendu laburrei freskotasuna eta umorea darie, eta Stravinski bezalako konpositore handien eraginak ere aurkitzen ditugu. Azkenik, Paquito D'Rivera klarinetista eta saxofoi jotzaile kubatarrek haize kintetorako egindako 'Aires Tropicales' eskainiko dute. 7 mugimendu ditu, eta horietako bakoitza erritmo ezberdinetan eta abesti latino-amerikar herrikoietan oinarrituta, entzulea Hego Amerikako herrialdeetara eramaten dute zuzenean. Zazpikatik lau interpretatuko dituzte.

Programa

I. atala

- **Jacques Ibert (1890-1962)**
 - 3 Pièces brèves
- **Gustav Holst (1874-1934)**
 - Wind Quintet op.14

II. atala

- **Paul Hindemith (1895-1963)**
 - Kleine Kammermusik Op.24 No.2
- **Paquito D'Rivera (1948)**
 - Aires Tropicales

Sarrera-txartelen salmenta

Errezitaldi bakoitzerako sarrerak **2019ko urriaren 23tik aurrera** salduko dira eta Kordoï Etxean (Aiztogile 24, beheko solairua) edo webgune honetan bertan eros daitezke.

Halaber, errezitaldi bakoitzerako sarrerak kontzertu egunean bertan eskura daitezke (**eserlekurik badago**), Vital Fundazioa Aretoan bertan, emanaldi bakoitza hasi baino ordu bete lehenagotik aurrera.

Ordainbidea banku-txartelaz da.

Kontsultatu denboraldiaren programa osoa [hemen](#).

Dokumentazioa

- [Eskuko programa](#) 356.04 KB